

Espedientearen kodea: 2026ZZ020009

Espedientearen gaia: 2026an Oiartzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oartzungo artistei dirulaguntzak.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

DEKRETUA

2022ko ekainaren 29an onartu zituen Udalbatzak “Oartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantzak”, 2022ko irailaren 20an argitaratu zirenak GAO.

Era berean, 2024ko urriaren 30ean onartu zuen Oartzungo Udalbatza Osoak “Oartzungo Udalaren 2025-2027 dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

2026ko apirilaren 29an onartu zituen Udalak “2026an Oartzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oartzungo artistei diru laguntzak banatzeko oinarriak”.

Diru laguntza hauek ordaintzeko, guztira, 10.000 € euroko gastu-onarpena egin zen, Oartzungo Udalaren 2026 urteko aurrekontuko aurrekontuko 1 0331.481.334.00.08.2026 (A-894-2026) zenbakidun partidaren kontura.

Dirulaguntza hauetan kontuan izan da 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2025-2027rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako indarrean dagoen araudia.

Dirulaguntzen zenbatekoa finkatzeko, eskaera orrian eta eranskinetan behar bezala jasota eta egiaztatuta dauden datuak hartu dira kontuan.

Eskatzaileek euren ekintzei buruz aurkeztutako datuak baloratu dira, oinarrietan jasotzen denaren arabera.

Dirulaguntzak kalkulatzeko, lehenik, puntuaren balio unitarioa atera da; horretarako, dirulaguntzaren lerro honetako aurrekontua, onartutako eskaeren puntu batura artean zatitu da. Jarraian, eskatzaile bakoitzari dagokion puntu kopurua, puntuaren balio unitarioaz biderkatu da.

Kultura Zerbitzuko arduradunak abuztuaren 4ean gai honi buruz luzatu duen txostena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan honakoa

ERABAKI DUT

Lehena.- Epearen barruan aurkeztutako eskaerak aztertuta eta deialdiaren oinarrien arabera, 2026 urtean Oartzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oartzungo artistei diru laguntzak banatzeko proposamena onartzea, erantsitako taulan txertatzen dena.

- o Eskaerak ebaluatzeko irizpideen garapena oinarrien arabera:

Dirulaguntzen zenbatekoa finkatzeko, eskaera orrian eta eranskinetan behar bezala jasota eta egiaztatuta dauden datuak hartu dira kontuan.

Eskatzaileek euren ekintzei buruz aurkeztutako datuak baloratu dira, oinarrietan jasotzen denaren arabera.

Dirulaguntzak kalkulatzeko, lehenik, puntuaren balio unitarioa atera da; horretarako, dirulaguntzaren lerro honetako aurrekontua, onartutako eskaeren puntu batura artean zatitu da. Jarraian, eskatzaile bakoitzari dagokion puntu kopurua, puntuaren balio unitarioaz biderkatu da.

Eskaerak aztertuta, erantsitako taulan adierazitako puntuazioa lortu du eskatzaile bakoitzak, eta ondorioz, adierazitako dirulaguntza ematea proposatzen da.

Bigarrena.- Diru laguntza hauek ordaintzeko, guztira, 10.000 € euroko gastu-onarpena egin zen, Oiartzungo Udalaren 2026 urteko aurrekontuko aurrekontuko 1 0331.481.334.00.08.2026 (A-894-2026) zenbakidun partidaren kontura. Dirulaguntzak banatzeko eta ordaintzeko proposamena, erantsitako taulan txertatzen dena, onartzea.

Hirugarrena.- Oinarriek ezarri bezala, txostenean adierazitako lehen ordainketak orain egitea (%80ari dagokiona, hau da guztira 8.000 €) eta gainerakoa (% 20ari dagokiona, hau da, guztira 2.000 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea.

Laugarrena.- Interesatuei dagokien dirulaguntzaren justifikazio-agiriak (eskabide-orria + IV, V, eta VI eranskinak gastuen justifikanteekin batera, 2027ko urtarrilak 31a baino lehen, udal erregistroan aurkeztu behar dituztela jakinaraztea. Orduan ordainduko zaie gainerako % 20a.

ARTE SORKUNTZARAKO DIRULAGUNTZAK 2026					
ESKATZAILEA	PROIEKTUA	PUNTUAK	ESKATU	ESLEITU	% 80 ORAIN
1545 argitaletxea	Argitaletxeko sorkuntza proiektuak	80	3.150 €	1.082,43 €	865,94 €
June San Sebastian Sein	Gerrateei buruzko ilustrazioak sortzea	85	1.600 €	1.149,76 €	919,81 €
Pello Añorga Lopez	Gerrateei buruzko testuak sortzea	85	800 €	800,00 €	640 €
Elizaldekoak LH Guraso Elkartea	"Ihoteak" album ilustratua	70	2.450 €	946,86 €	757,49 €
Janusz Borkowski	"Seaska Kanta" pieza grabatzea	86	1.090 €	1.090 €	872 €
Olatz Mitxelena Larreta	Seaska Kanta pieza: testuak sortzea	85	900 €	900 €	720 €
Desaires Kultur Elkartea	"Plató" antzerki-proiektua	66	5.000 €	892,77 €	714,22 €
Lur Live artea eta natura	Lur Live artea eta natura jaialdia	71	2.000 €	960,39 €	768,31 €
Mikel Ibarguen Andueza	Albokarako kantuak sortzea	85	2.000 €	1.149,76 €	919,81 €
Mirokutana Kooperatiba Elkartea Txikia	"Juan Mari Irigoyen" laburmetraia	76	5.000 €	1.028,02 €	822,42 €
		GUZTIRA 789 Puntu	23.990 €	10.000,00 €	8.000,00 €

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026ZZ020009-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)